## INFORMAZIO OHARRA

Uztailaren 1ean, lurralde erkidean, BEZaren kudeaketa-sistema berria jarriko da indarrean, informazioa berehala emateko sisteman oinarritzen dena (SII izenarekin ezaguna). Hori dela eta, Bizkaiko Foru Ogasunak bere zergadunei jakinarazten die antzeko sistema bat ezarriko duela lurraldean. Ekonomia Itunaren 46.Bi.a) artikuluaren arabera, zergaduna (pertsona zein entitatea) ikuskatzeko eskumena duen administrazioaren aurrean bete behar dira BEZaren kudeaketa-sistema horren ondoriozko informazio-betebeharrak. Beraz, Bizkaiko Foru Ogasunaren ikuskatze-eskumenekoak diren zergadunek (pertsonak zein entitateak) BEZaren kudeaketa-sistema horren ondoriozko informazio-betebeharrak bete behar izango dituzte Foru Ogasun honen aurrean, hark ezarriko dituen epeetan eta baldintzekin bat.

Arrazoi batzuk egon dira BEZaren kudeaketa-sistema hori Bizkaiko lurraldean ezartzea erabakitzeko, hain zuzen: iruzur fiskalaren kontra egiteko beste tresna bat gehiago izango da sistema hori, eta, epe ertainean, pertsona edo entitate zergadunek errazago izango dute beren betebehar fiskalak borondatez betetzea,

## NOTA INFORMATIVA

Ante la entrada en vigor el próximo 1 de julio en Territorio Común del nuevo sistema de gestión del IVA basado en el suministro inmediato de información (conocido como SII), la Hacienda Foral de Bizkaia comunica a sus contribuyentes que también va a implantar un sistema similar en su territorio. En aplicación del artículo 46.Dos.a) del Concierto Económico, las obligaciones de información derivadas del mencionado sistema de gestión del IVA deberán cumplirse ante la Administración a la que corresponda la competencia inspectora de la persona o entidad contribuyente. Por tanto, las personas y entidades contribuyentes cuya competencia inspectora corresponda a la Hacienda Foral de Bizkaia deberán cumplir las obligaciones derivadas del mencionado sistema de gestión del IVA ante esta Hacienda Foral, y en los plazos y con los requisitos que determine.

La decisión de implantar el citado sistema de gestión del IVA en el Territorio de Bizkaia se justifica por la convicción de que este sistema será una herramienta más en la lucha contra el fraude fiscal, sin obviar que a medio plazo pretende también facilitar a la persona o entidad contribuyente el cumplimiento voluntario de sus obligaciones

sistemaren ezarpenak salbuetsiko baititu tributu-eredu jakin batzuk aurkeztetik (hala nola 340 eta 347 ereduak).

fiscales, ya que su implantación eximirá de presentar determinados modelos tributarios, como por ejemplo, los modelos 340 y 347.

Neurri honek garrantzi handiko ondorioak ekarriko dizkie BEZa aitortu behar duten pertsona nahiz entitateei. Horregatik, Bizkaiko Foru Ogasunak behar bezala eta nahiko denborarekin jakinaraziko die gai hau dela-eta hartzen duen edozein erabaki. Edozelan ere, une honetan egokitzat jotzen du hau argitzea:

Dado que esta medida tendrá una importante repercusión entre las personas y entidades contribuyentes obligadas a declarar IVA, la Hacienda Foral de Bizkaia comunicará debidamente y con suficiente antelación cualquier decisión que adopte sobre este asunto. En cualquier caso, en este momento considera conveniente aclarar lo siguiente:

- Bizkaiko Foru Ogasunak oraindik ez du zehaztu zer egunetan ezarriko duen sistema hori; baina 2018ko urtarrilaren 1ean ezartzeko aukera aztertzen ari da. Behin betiko erabakia bi baldintzaren pean dago; batetik, beharrezkoa da sistemak ondo funtzionatzen duela bermatzea, eta, bestetik, kontuan hartu behar da zer epe behar duten zergadunek (pertsonak zein entitateak) aukeratutako sistemara egokitzeko. Izan ere, hobe da ezarpena atzeratzea, hala sistemaren funtzionamendu ona bermatzen bada.

- La Hacienda Foral de Bizkaia aún no ha definido la fecha de implantación de dicho sistema, si bien la opción con la que está trabajando es el 1 de enero de 2018. La decisión de la fecha definitiva dependerá de las garantías que se tengan de que el sistema funciona correctamente y del plazo que necesiten las personas y entidades contribuyentes para adaptarse al sistema elegido, ya que es preferible retrasar su implantación si ello aporta garantías de buen funcionamiento.

- Badira bi hilabete AEATek BEZaren kudeaketa-sistema hau ezartzeko behin betiko erabakia jakinarazi ziola Foru Ogasun honi. Ordutik hona, Bizkaiko Foru Ogasuna lanean aritu da Arabako eta Gipuzkoako

- Desde que hace dos meses esta Hacienda Foral recibiera la comunicación de la AEAT de su decisión definitiva de implantar este sistema de gestión del IVA, la Hacienda Foral de Bizkaia viene trabajando

foru-ogasunekin, sistema ezartzeko aukera tekniko egokiena zein den definitzeko.

conjuntamente con las Haciendas Forales de Araba y Gipuzkoa en la definición de la alternativa técnica más apropiada para realizar su propia implantación del citado sistema.

Sistemaren bidez, funtsean, BEZaren erregistro-liburuetako fakturazio-erregistroak telematikoki bidaliko dira, XML mezuen trukean oinarritutako web-zerbitzuak erabiliz. Haien informazioarekin, Bizkaiko Foru Ogasunak ia denbora errealean prestatu ahal izango ditu erregistro-liburuak.

El mencionado sistema consiste, básicamente, en el suministro telemático de los registros de facturación integrantes de los Libros registro del IVA, mediante servicios web basados en el intercambio de mensajes XML, con cuya información se irán configurando, prácticamente en tiempo real, los distintos Libros registro por parte de esta Hacienda Foral de Bizkaia.

Sistema derrigor aplikatuko zaie hilarekin bat datorren likidazio-aldia duten enpresaburuei, profesionalei eta BEZaren gainerako subjektu pasiboei. Zehazki, BEZaren hileko itzulketaren erregistroan (REDEME) inskribatuta dauden pertsona eta entitate zergadunei, erakunde taldeen araubide berezian (REGE) inskribatuta dauden entitate zergadunei eta, azkenik, aplikazioaren aurreko urtean 6.010.121,04 euroko urteko eragiketa-bolumena izan duten pertsona eta entitate zergadunei. Halaber, sistema aplikatzea borondatez aukeratzen dutenek erabili ahal izango dute. Kasu horretan, zerga hilean autolikidatzera behartuta egongo dira, eta, gutxienez, aukera hori hautatu duten urte naturalean

Este sistema será de aplicación obligatoria a personas empresarias, profesionales y otros sujetos pasivos del IVA que tengan un período de liquidación que coincida con el mes natural. En concreto, las personas y entidades contribuyentes inscritas en el Registro de Devolución Mensual del IVA (REDEME), las entidades contribuyentes inscritas en el Régimen Especial de Grupos de Entidades (REGE), así como las personas y entidades contribuyentes cuyo volumen de operaciones del año precedente al de su aplicación hubiera excedido de 6.010.121,04 de euros. Asimismo, podrán incorporarse al sistema quienes opten voluntariamente por su aplicación, en cuyo caso quedarán obligados a autoliquidar el

egon behar izango dute sisteman.

mensualmente y deberán permanecer en el sistema, al menos, durante el año natural para el que se hubiera ejercitado dicha opción.

Beraz, Bizkaiko Foru Ogasunak jakinaraziko die bere ikuskatze-eskumenekoak diren eta BEZaren kudeaketa-sistema berria (informazioa berehala emateko sisteman oinarritua) derrigor aplikatzeko betekizunak betetzen dituzten pertsona eta erakunde zergadunei eta sistema beren borondatez aplikatu nahi dutenei noiztik aurrera eta nola bete behar duten informazioa emateko betebeharra, behin Foru Ogasunak aukera teknikorik egokiena eta hura ezartzeko eguna erabaki ondoren. Bitartean, indarrean dauden arauekin bat bete behar dituzte zergadunek beren betebeharrak.

Por tanto, la Hacienda Foral de Bizkaia informará oportunamente a las personas y entidades contribuyentes cuya competencia inspectora corresponda a esta Hacienda Foral y cumplan los requisitos para aplicar obligatoriamente el nuevo sistema de gestión del IVA basado en el suministro inmediato de información, o lo quieran aplicar voluntariamente, del momento a partir del cual y de la forma en que deberán cumplir con esta obligación de suministro de información, una vez que se defina la alternativa técnica más adecuada y la fecha de su implantación, debiendo cumplir sus obligaciones entretanto conforme a las normas actualmente en vigor.

OGASUNEKO ZUZENDARI NAGUSIA
EL DIRECTOR GENERAL DE HACIENDA

Sin/Fdo.: Aitor Soloeta Eraso